



GAIA: GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLAREN ASEGURUA

Egun on ,

Ohar honen bidez, **eskola-kiroleko aseguruan izandako aldaketa esanguratsu baten berri ematen da.**

AURREKARIAK

Eskola-kirola arautzen zuten lege zaharrek – 10/1990 Legea, urriaren 15ekoa, Kirolari buruzkoa (Estatukoa) eta 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolari buruzkoa – adierazten zuten osasun-sistema publikoa zela osasun-laguntzaren erakunde arduraduna, istripurik izanez gero.

2022an, Kirolaren abenduaren 30eko 39/2022 Legea onartu zen (estatukoa). Lege horren 86. eta 87. artikuluetan honako hau esaten da: «Lehiaketaren ondoriozko arriskuen prebentzioa, bai kirolarientzat, bai ikusleentzat eta hirugarren pertsonentzat, istripu-aseguruak eta osasun-laguntzako aseguruak sinatuz, bai eta ikusleentzako eta hirugarren pertsonentzako erantzukizun zibilekoak ere, erregelamendu bidez zehazten den moduan».

Geroago, 2023an, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legea onartu zen. Lege horrek 88.1 artikuluan dioenez, "Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren kirol-jardun askearen ondoriozko osasun-laguntza osasun-sistema publikoak emango du, haren kontura. Halaber, osasun-sistema publikoaren kargura emango zaie osasun-laguntza Euskal Autonomia Erkidegoko lehiaketetan parte hartzen dutenei".

TEMA: SEGURO DE DEPORTE ESCOLAR DE GIPUZKOA

Buenos días,

Mediante esta nota **se informa sobre un cambio significativo en relación al seguro de Deporte Escolar.**

ANTECEDENTES

Las antiguas leyes que regulaban el Deporte Escolar -la Ley 10/1990, de 15 de octubre, del Deporte (estatal) y la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, señalaban al sistema sanitario público como entidad responsable de la asistencia sanitaria en caso de accidente.

En el año 2022 se aprobó la Ley 39/2022, de 30 de diciembre, del Deporte (estatal). Esta ley dice en sus artículos 86 y 87 que 'La prevención de los riesgos que se deriven de la competición tanto para las personas deportistas como espectadoras y terceras personas, mediante la suscripción de los correspondientes seguros de accidentes y asistencia sanitaria, así como de responsabilidad civil para los espectadores y terceras personas, en los términos en que se determine reglamentariamente'.

Más adelante, en el año 2023, se aprobó la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco. Dicha ley, en su artículo 88.1 dice que 'la asistencia sanitaria derivada de la práctica deportiva libre por las ciudadanas y los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco será prestada por el sistema sanitario público con cargo al mismo. También será prestada con cargo al sistema sanitario público la asistencia sanitaria a quienes participan en competiciones de ámbito autonómico del País Vasco'.



Estatuko lege berria eta Euskal Autonomia Erkidegokoa bat ez zetozenez, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzeta Batzordeak, 2024ko urtarrilaren 12an, akordio bat lortu zuen, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua. Akordio horrek adierazten zuen 2/2023 Legearen 88.1 artikuluan aurreikusitako osasun-laguntza Estatuko araudian aurreikusitako moduan ulertuko dela (39/2022 Legea, abenduaren 30ekoa, Kirolarena).

Debido a la discrepancia entre la nueva ley estatal y la del País Vasco, la Comisión Bilateral de Cooperación Administración del Estado-Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de 12 de enero de 2024, alcanzó un Acuerdo, publicado en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial del País Vasco. Este Acuerdo señalaba que la asistencia sanitaria, prevista en el artículo 88.1 de la Ley 2/2023, se entenderá en la forma prevista en la normativa estatal (Ley 39/2022, de 30 de diciembre, del Deporte).

GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLEKO ASEGUARUARI BURUZKO INFORMAZIOA

INFORMACIÓN RELATIVA AL SEGURO DE DEPORTE ESCOLAR DE GIPUZKOA

Beraz, eskola-kiroleko aseguruaren arloan, GFAko Kirol Zerbitzuak honako hau jakinarazten die Gipuzkoako eskola-kiroleko eragileei:

Por lo tanto, en materia de seguro de deporte escolar, desde el Servicio de Deportes de la DFG se informa a los y las agentes de deporte escolar de Gipuzkoa de lo siguiente:

- **Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratatutako aseguru-etxeak (SURNE) hartuko du bere gain Eskolako Kirolaren Programan jasotako jarduera guztien osasun-laguntza (baita futbol, saskibaloia, eskubaloia eta errugbi modalitateetako hastapeneko unitateak), salbu eta ikaslearen aitak/amak edo legezko tutoreak aseguru pribatu bat badu.**
- **Aseguruaren estaldura ([esteka](#)).**
- **Istripua izanez gero, ASESMED-era deitu beharko da: 926406441. Istripua izan duena eskola kiroleko aseguruaren itundutako zentrorara bideratuko da. Bertara deitzean, poliza zenbakia eskatuko dute, ondokoa izango dena: 20230620326992.**
- **La asistencia sanitaria de todas las actividades incluidas en el Programa de Deporte Escolar (también las unidades de iniciación de las modalidades de fútbol, baloncesto, balonmano y rugby) será asumida por la compañía aseguradora contratada por la Diputación Foral de Gipuzkoa (SURNE), salvo que el padre/madre o tutor/a legal del alumnado tenga un seguro privado.**
- **Cobertura del seguro ([enlace](#)).**
- **En caso de accidente se deberá llamar a ASESMED: 926406441. El accidentado será derivado a un centro concertado por el seguro de deporte escolar. Al llamar le solicitarán el número de póliza que es el siguiente: 20230620326992.**



- Istripua izaten den guztietan istripu partea bete beharko da ([esteka](#)).
- Hil edo biziko larrialdi bat bada soilik jo ahal izango da itundu gabeko zentro batera (Osakidetzara, besteak beste). Kasu horretan bakarrik hartuko luke bere gain eskola-kiroleko aseguruak istripuaren ondoriozko kostua.
- Eskola-kirolaren estaldura izateko, beharrezkoa da indarrean dagoen ikasturtean, dagokion modalitatean, eskola-kirolaren aplikazioan (Kirol Data) izena emanda egotea.
- Siempre que se produzca un accidente hay que rellenar el parte de accidentes ([enlace](#)).
- Sólo si se trata de una urgencia vital se podrá acudir a un centro no concertado (Osakidetzeta, entre otros). Sólo en este caso el seguro de deporte escolar asumiría el coste derivado del accidente.
- Recordar que para contar con las coberturas de deporte escolar es necesario estar inscrito/a en la aplicación de deporte escolar (Kirol Data) el curso escolar vigente en la modalidad correspondiente.

Ikus hurrengo [infografía](#), istripurik izanez gero jarraitu beharreko urratsak jasotzen dituen.

Véase la siguiente [Infografía](#) que recoge los pasos a seguir en caso de accidente.

Eskertuko genizueke informazio hau guraso edo legezko tutoreekin, entrenatzaileekin, ordezkariekin edo eskola-kiroleko jardueretan parte hartzen duten beste eragile batzuekin elkarbanatzea.

Os agradeceríamos que facilitarais dicha información a los padres/madres/tutores legales, entrenadores/as, delegados/as u otros agentes involucrados en las actividades de Deporte Escolar.

Eskola-kiroleko aseguruari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu GFaren [webgunea](#).

Para más información sobre el seguro de deporte escolar consultar la [página web](#) de la DFG.

Beste edozein kontsulta egiteko, jarri harremanetan GFeko Kirol Zerbitzuarekin: kirolak@gipuzkoa.eus / 943 11 24 97

Para cualquier otra consulta contactar con el Servicio de Deportes de la DFG: kirolak@gipuzkoa.eus / 943 11 24 97

Ondo izan.

Un saludo.

Donostian, 2024ko urriaren 16an

Sin.
MARTA PASTOR BAÑALES
Kiroletako zuzendari nagusia

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Lankidetzaz, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Asegurua Oharra